

## BEHARTUTAKO LANEAN ARITUTAKO FRANKISKOAREN ESKLABOEI AITORTZA

Etxetxo, Lezoko memoria historikoaren elkarte 2016ko uztailan sortu zen herriko memoria historikoa lantzen, berreskuratzen eta ezagutarazten laguntzeko talde eragile gisa. Taldeko kideek ibilbide luzea dute lehendik ere memoria historikoaren inguruko lanak argitaratu dituztelako edota horien inguruko lanketak eta ekitaldiak egin eta antolatu dituztelako. Lehenengoz elkarte eratu gisa hasi da taldea Etxetxo izenarekin.

Azken urte eta erdian frankismoaren esklaboen arrastoak eskizari dabil taldea. Zehatzago esateko, gure herrian behartutako lanean aritu ziren frankismoaren esklaboen berri gehiago jakin nahian. Zoritxarrez, gure herriko artxibo edo altxarian ez dago behartutako lanean aritu ziren gizon haien zerrendarik, ez bestelako berririk ere, hiru heriotza-agiri baino ez. Beraz, 1939-1946ko epe horretan gure herrian bi lan erraldoi egiten aritu zirenen berri lekukoek lekukotzei esker dakigu. Bestelako lanetan ( hizkera jasotzen, historiako pasarteak ezagutzen, edota aldizkarietarako elkarrizketak egiten) ari ginelarik edo zirelarik, zeharka ezagutu ditugu "trabajadoreek", hala esaten zien herriak, pairatutako sufrikarioen berri. Lekukoek esan bidez genekien Jaizkibelgo errepidea eta "Vallespin" lerro gotorra eraikitzen aritu zirela, eta ehunka izan zirela, 900dik gora, urte horietan herriko kanpaleku edo destakamendu militarretatik, baserri bahituetatik edota herriko hainbat etxabeetatik pasatuko zigortuak. Gerran preso hartutako edota soldadutza urte haietan egitea tokatu zitzaizen "errejimenari atxikimendurik ez zioten" pertsonak ziren; frankismoaren esklaboak, edota herriak esaten zien bezala, "Trabajadoriak".

Arestian aipatu dugun moduan, Lezon, egun GI-3440 izenez ezagutzen dugun errepidearen Errotetatik Guadalupeko santutegira bitarteko zatia eraikitzen aritu ziren aipatu trabajadore gehienak, eta beste gainerakoak frankismoak Espainiaren eta Frantziaren arteko mugatzat zuen eremu zabala gotortzeko lerroa "Vallespin" eraikitzen.

Altxamendu faxistaren 80. Urteurrena dela probestuz, segidako ekimen-sorta honen bidez, frankismoaren biktima haiek omendu nahi ditu Etxetxo elkarteak, modu xumean bada ere.

### Urriaren 3tik 5era

- Frankismoaren esklaboei buruzko erakusketa izango da ikusgai Udalaren Kultura eta Euskara Sailaren aretoan

### Urriak 6, osteguna:

- Arratsaldeko 19:00etan, "Trabajadoriak; frankismoaren gatibuak Oarsoaldean" dokumentalaren ikustaldia, eta ondotik **mahai-ingurua** Gezala aretoan. Mahai-inguruan Fernando Mendiola, "Esclavos del franquismo" liburuaren egileak eta Oartzungo Kattin txiki taldeko Mikel Mendizabalek hartuko dute parte, bi lekuko zuzenekin batera: Mikel Salaberria eta Xeberiano Sistiaga.

### Urriak 9, igandea:

- Goizeko 10:00etan herrian egondako **trabajadoreen ibilbidea** egingo dugu haien aztarnei jarraituz.

- 10:45ean, Iparragirreko barrakoen aztarnak ikusiko ditugu eta bertan azalpenak emango ditugu. Ondotik, oinez Errotetarantz joango gara, hango barrakoen aztarnak ikustera.
- Eguerdiko 12:00etan trabajadoreei eskainitako **oroitarria inauguratuko** dugu Errotetako barrakoieta eta **omenaldia** egingo zaie haiei eta haien familiakoei.
- Eguerdiko 13:00etan Andreone aldean bilduko gara denak handik herriko plazara arteko bidea egiteko.
- 13:45ean, herriko plazan omenaldi ekitaldiei amaiera emango zaie **herri otordutxo** batekin, dantzarien eta musikaren laguntzaz (Sutargi abesbatza, Tionteron dantza taldea, txalaparta...). Eguraldi txarra egingo balu, ekitaldi hau Karlos Saldise plazan egingo genuke.

Lezoko Unibertsitateko Udalbatzari osoko bilkuran honoko puntuak onar ditzan eskatzen diogu:

- **Behartutako lanaz, Jaizkibelgo errepidea eta Gaintxurizketa aldeko "Vallespin" lerro gotorra eraikitzen aritu ziren gizon haiek pairatutako sufrimendua aitortzea.**
- **Francisco Franco General faxistaren aginduz gizon haiei ezarritako bidegabeko zigorra eta eragindako min nahiz kaltea deitoratzea.**
- **Frankismoaren esklaboei omen egiteko Etxetxo elkarteak urrian egingo dituen ekimenak bere egitea, haietako bakoitza antolatzen eta ezagutzera ematen laguntzea eta finantzatzea. Horretarako premiazko diru partida bat bidera dadin onartzea Hartara, ekimenari izaera ofiziala emango die.**
- **Etorkizunean gauza litezkeen memoria historikoaren berreskurapenerako ekimenei babes osoa ematea.**
- **Udalerriaren barrutian dauden 36ko gerraren aztarnak (barrakoiak, bunkerrak, ametralladora-habiak, galeriak eta abar) babesteko ekimenak bideratzeko aukerak aztertzea.**